



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: MOMO

© 1973, K. Thienemann Verlag

(Thienemann Verlag GmbH), Stuttgart/Wien

© Itzulpenarena: 2019, Mikel Babiano

© Euskarazko argitalpena:

2019, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-35-3

Lege-gordailua: M-16337-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Irurk Itzulpenak eta Josu Goikoetxea

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

MOMO

Michael Ende

begiko

*Ilunean zure argiak ñir-ñir.
Zein bazterretatik, nik ez dakit.
Hain gertu eta hain aparte.
Zure izena ez dut ezagutzen.
Hala ere, berdin du nor zaren:
Argitu, izartxo, argitu, bihar arte!*

(Irlandako haur-kanta zaharra)

Lehen atala

**Momo eta haren
lagunak**

Hiri handia eta neska txikia

Aspaldi-aspaldiko garaietan, gizakiek beste hizkuntza batzuetan hitz egiten zuten garaietan, baziren lurralde epeletan hiri handi eta ikusgarriak. Han zeuden errege eta enperadoreen jauregiak, han hiribide zabalak, kale estuak eta kalezulo bihurriak, han tenplu zoragarriak, jainkoen urrezko eta marmolezko estatuaz josiak, han azoka bizi-biziak, herrialde guztietako produktuak eskaintzen zituztenak, eta han plaza zabal eta ederrak, azken albisteak ezagutzeko eta hitzaldiak eman edo entzuteko irrikaz zegoen jendetza erakartzen zutenak. Eta, batik bat, han zeuden teatro handiak.

Gaur egungo zirkuen antzeko itxura zeukaten, eta ezberdintasun bakarra: harrizko blokez eraikita zeuden. Ikusleentzako eserleku-ilara luzeak zituzten, elkarren gainean, mailaz maila, inbutu erraldoi batean bezala. Goitik ikusita, biribilak ziren antzoki horietako batzuk, obalak beste batzuk, edo zirkuluerdi formakoak. «Anfi-teatro» deitzen zieten.

Batzuk futbol-estadio bat bezain handiak ziren; eta txikiagoak ere baziren, berrehun ikusle ingururentzako

tokia doi-doi zutenak. Batzuk oso dotoreak ziren, zutabe eta eskulturaz beteak; eta beste batzuk, berriz, soilak eta apaingarririk gabeak. Anfiteatroek ez zuten teilaturik, zerua ez besterik. Horregatik, teatro luxuzkoenetan urrezko zapiak zintzilikatzen zituzten eserleku-ilaren gainean, ikusleak eguzki gupidagabetik edo bat-bateko euri-zaparradetatik babesteko. Antzoki xumeetan ihi eta lastozko esterak ipintzen zituzten. Hitz gutxitan esateko: bere teatroa zuen pertsona bakoitzak, bata edo beste, erosteko ahalmenaren arabera. Baina guzti-guztiek nahi zuten bat, entzule eta ikusle kartsuak zirelako.

Ikuskizun zirraragarri edo barregarriei arretaz erreparatzen zietenean, agertokiaren gainean antzeztutako bizitzak, zergatik azaldu ezin arren, beren eguneroko bizitzak baino errealagoak iruditzen zitzaizkien. Eta beste errealitate hori igartzea maite zuten.

Milaka urte igaro dira ordutik. Desagertu ziren aspaldiko hiri handiak, jausi tenpluak eta jauregiak. Haizeak eta euriak, hotzak eta beroak biribildu eta zulatu dituzte harriak, eta hondakinak baino ez dira geratzen teatro handietatik. Txikitutako hormen artean txitxarren kanta monotonoa aditzen da orain, lurrak ametsetan arnasa hartuko balu bezala.

Baina hiri zahar eta handi horietako batzuk handiak dira gaur ere. Bizimodua asko aldatu da, noski. Biztanleek autoan eta tranbian bidaiatzen dute, telefonoa eta argi elektrikoa dituzte. Baina eraikin berrien artean, han-hemenka sakabanatuta, oraindik ikus daitezke zutabe batzuk, ate bat, horma zati bat eta baita aspaldiko

garaietako anfiteatroren bat ere. Horrelako hiri batean gertatu zen Momoren istorioa.

Kanpoaldean, hiri handi horretako hegoaldeko muturrean, lehendabiziko larre zabalak agertu eta etxolak eta etxeak gero eta xumeagoak ziren lekuan, pinuditxo batean ezkutatuta, anfiteatro txiki baten hondakinak zeuden. Aspaldiko garaietan ere ez zen aberatsa, orduan ere jende txiroarentzako teatroa izan zela esan dezakegu. Gure garaian, hau da, Momori buruzko kontakizuna hasi zen garaian, anfiteatroa erabat ahaztuta zuten ia denek. Antzinako kulturetan espezializatutako unibertsitateko irakasle batzuek besterik ez zuten ezagutzen, baina ez ziren ordurako hartaz arduratzen, ikertzeko gauza berririk eskaintzen ez zielako. Gainera, ezin zen hiri handiko beste leku turistiko batzuekin lehiatu. Horregatik, noizean behin besterik ez ziren turista gutxi batzuk handik galtzen, belarrak estalitako eserleku-ilaretara igotzen ziren, zarata egiten zuten, argazki bat atera eta ospa. Harritzko zirkuluak isiltasuna berreskuratzen zuen orduan, eta txitxarrek kanta amaigabearen hurrengo konpasari ekiten zioten, aurrekoaren berdin-berdina zena, bide batez esanda.

Egiari zor, inguruko biztanleek besterik ez zuten eraikin bitxi eta biribil hura ezagutzen. Hor bazkatzen ziren haien ahuntzak, umeek erdiko plaza biribila erabiltzen zuten futboleko aritzeko eta bikote maiteminduak bertan elkartzen ziren batzuetan gauzez.

Baina, egun batean, anfiteatroan norbait bizitzen ari zelako zurrumurrua zabaldu zen herritarren artean. Ume

bat, neska txiki bat omen zen, baina ezin zuten zehatz-mehatz ziurtatu, modu arraro samarrean jantzita ibiltzen zelako. Momo zuen izena, edo antzeko zer bait.

Momoren kanpoko itxura nahiko arraroa zen, egiaz, eta garbitasunari eta ordenari garrantzi handia ematen zieten artean nolabaiteko ikara eragin zezakeen.

12 Txikia eta nahiko argala zen; horregatik, ezinezkoa zirudien, asmorik onenaz saiatu eta saiatu arren, zortzi edo hamabi urte zituen jakitea. Ile nahasi eta kizkurra zuen, ikatza bezain beltza, itxura batera orrazirik edo gu-raizerik sekula ezagutu gabea. Oso handiak, ederrak eta ikatza bezain beltzak ziren haren begiak ere, eta kolore berekoak haren oinak, ia beti oinutsik ibiltzen zelako. Neguko egun jakinetan besterik ez zituen oinetakoak janzen, baina elkarrengandik ezberdinak ziren bi-biak, bat ez zetozen pareetakoak, eta, hori gutxi balitz bezala, handiegiak harentzat. Azken finean, Momok ez zeukan ezertxo ere ez, lekuren batean topaturikoa edo oparitu ziotena salbu. Haren gona askotariko adabaki koloretsuak elkarri josiz egina zegoen eta orkatiletaraino iristen zitzaion. Gizonentzako beroki zahar eta handiegia eraman ohi zuen, mahukak eskumuturretan bilduta zituela. Momok ez zituen moztu nahi, kontu handiz pentsatzen zuelako gehiago haziko zela. Eta batek daki egunen batean hain polita eta praktikoa zen eta hainbeste poltsiko zituen beroki hura bezalakorik topatuko ote zuen.

Hondakinetak antzeztoki belartsuaren azpian, erdi eroritako gelaxka pare bat zegoen, kanpoko hormako zuloaren bestaldean. Hortxe zuen Momok bizilekua.

Arratsalde batean, inguruko gizon eta emakume batzuk neskatoarengana joan ziren eta galderak egin zizkionten. Momo haien aurrean zegoen eta izututa begiratzen zien, handik botako zuten beldur zelako. Baina berehala ohartu zen pertsona jatorrak zirela. Pobreak ziren haiek ere, eta bizimodu latza zuten.

—Beraz —galdetu zuen gizon batek—, gustura zaudete hemen?

—Bai —erantzun zion Momok.

—Eta hemen geratu nahi duzu?

—Bai, horixe.

—Baina ez zaituzte inon espero?

—Ez.

—Esan nahi dut, ez duzu etxera itzuli behar?

—Hau da nire etxea —ziurtatu zuen azkar Momok.

—Nongoa zara, ume?

Momok keinu lauso bat egin zuen eskuarekin eta zerumuga urruna seinالاتu zuen.

—Zeintzuk dira zure gurasoak? —jakin nahi izan zuen gizonak.

Umeak hari eta besteei begiratu zien eta, zer esan ez zekienez, sorbaldak jaso zituen pixka bat. Helduek elkarri begiratu zioten eta hasperen egin zuten.

—Ez beldurrik izan —jarraitu zuen gizonak—. Ez zaitugu hemendik bota nahi. Lagundu egin nahi dizugu.

Momok baietz egin zuen buruaz, baina zalantzak ziztuen.

—Momo zarela diozu, ezta?

—Bai.

—Bai izen polita, ez nuen sekula entzuna. Nork jarri zizun izen hori?

—Nik neuk —esan zuen Momok.

—Zeure buruari izen hori jarri diozu?

—Bai.

—Eta noiz jaio zinen?

Momok tarte labur batez hausnartu, eta zera esan zuen azkenean:

—Nik dakidala, betidanik egon naiz hemen.

14 —Ez al duzu izebarik, osabarik, amonarik edo seniderik, haiengana joateko?

Momok gizonari begiratu zion eta isilik geratu zen. Handik lasterrera xuxurlatu zuen:

—Hau da nire etxea.

—Tira —esan zuen gizonak—, baina ume bat zara. Zenbat urte dituzu?

—Ehun —erantzun zuen zalantzati Momok.

Guztiek barre egin zuten, neska txantxetan ari zelakoan.

—Orain benetan, zenbat urte dituzu?

—Ehun eta bi —erantzun zuen Momok, pixka bat zalantzatiago.

Helduak apur bat geroago konturatu zirenez, batek daki non entzundako zenbaki batzuk besterik ez zekizkien Momok, baina ez zuen haien esanahia ulertzen, inork zenbatzen irakatsi ez ziolako.

—Entzun —proposatu zion gizonak, besteekin hitz egin ondoren—, ondo iruditzen zaizu poliziari hemen zaudela esaten badiogu? Egoitza batera eramango

zaituzte eta hor jaten emango dizute, ohe bat izango duzu eta zenbatzen eta irakurtzen eta idazten eta beste gauza asko egiten erakutsiko dizute. Zer diozu?

Momok izututa begiratu zion.

—Ez —xuxurlatu zuen—, ez dut hara joan nahi. Egon nintzen toki horretan. Ume gehiago zeuden. Leihoek barrroteak zituzten. Egunero jipoitzen gintuzten, arrazoirik gabe. Gau batean kanpoko horman gora igo eta ihes egin nuen. Ez dut hara itzuli nahi.

—Ulertzen dut —esan zuen gizon zahar batek, eta baietz egin zuen buruaz. Eta besteek ere ulertzen zuten, eta baietz egin zuten buruaz.

—Ondo da —esan zuen emakume batek—, baina txikia zara oraindik. Norbaitek arduratu beharko du zutaz.

—Nik neuk —esan zuen Momok, lasaiturik.

—Nola, ordea? —galdetu zuen emakumeak.

Momo isilik geratu zen, eta ahots hari batez esan zuen:

—Ez dut askorik behar.

Helduek elkarri begiratu zioten berriro, hasperen egin zuten eta baietz buruaz.

—Aizu, Momo —hartu zuen berriro hitza lehendabiziko aldiz hitz egin zuen gizonak—, pentsatu dugu, beharbada, gutako norbaiten etxean bizi zaitezkeela. Denok dugu leku gutxi, eta gehienok goseak amorratzen dagoen ume piloa, baina uste dugu ume bat gehiago edo gutxiago izateak ez digula apenas aldaketarik ekarriko. Zer diozu?

—Eskerrik asko —esan zuen Momok eta irribarre egin zuen lehen aldiz—, mila esker! Baina ezin didazue hemen bizitzen utzi, besterik gabe?

Helduek luze hitz egin zuten eta ados jarri ziren azkenean. Azken finean, umea beren etxeetan bezain ondo biziko zen hor, edo halaxe uste zuten, eta guztien artean zainduko zuten, elkarrekin aritzea errazagoa izango zelako bakar batentzat neskaz arduratzea baino.

16 Berehala ekin zioten lanari, eta, hasteko, erdi erorita zegoen harrizko gelaxka, Momok etxetzat zeukana, ahal bezain txukun garbitu eta konpondu zuten. Igeltseroa zen gizon batek harrizko sukalde txiki bat egin zuen. Kearentzako tximinia herdoildu bat ere topatu zuten. Arotz zahar batek kaxa bateko ohol pareta eta iltze batzuk erabili zituen mahaitxo bat eta bi aulki apailatzeko. Eta, azkenik, emakumeek kiribilekin apaindutako burdinazko ohe-egitura zaharkitu bat, apur bat urratuta zegoen koltxoi bat eta bi burusi eramant zituzten. Antzeztokiaren azpiko harrizko zuloak gelatxo atsegin baten antza hartu zuen. Bukatzeko, arte kontuetan ere trebea zen igeltseroak lore baten koadro polita margotu zuen horman. Markoa eta irudia zintzilikatzeko iltzea ere margotu zizkion. Orduan, helduen seme-alabak iritsi ziren eta soberan zeuzkaten jaki apurrak eramant zituzten: honek gazta zatitxo bat, hark ogia, besteak fruta pixka bat eta abar. Eta ume asko zirenez, gau hartan bertan hainbeste elkartu ziren, denek batera anfiteatroan egiazko festa txiki bat antolatu ahal izan zutelara, Momo etxe berrian sartu zela

ospatzeko. Soilik herritar pobreek behar bezala gozatzzen dakiten festa alaia izan zen.

Horrela hasi zen Momo txikiaren eta inguruko bizilagunen arteko adiskidetasuna.

Gaitasun ezohikoa eta liskar oso ohikoa

18 Aurrerantzean ondo moldatu zen Momo txikia, edo berak irudipen hori izan zuen, behintzat. Batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago, beti zuen zerbait jateko, egunaren eta biztanleen premien arabera. Teilatua zuen, ohea ere bai, eta sua piztu zezakeen hotz zenean. Garrantzitsuena ahaztu gabe: adiskide paregabe piloa zeukan.

Pentsatzekoa da Momok izugarrizko zortea izan zuela hain jende jatorra ezagututa, eta horixe uste zuen Momok berak. Baina bizilagunak ere laster ohartu ziren ez zutela zorte eskasagorik eduki. Momo behar zuten eta beren buruari galdetzen zioten nola moldatu ziren bera agertu aurretik. Neskatila txikiak beraiekin zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta ezinbestekoagoa iruditzen zitzaien bera aldean izatea, hain ezinbesteko, beldur baitziren egunen batean ez ote zuen alde egingo.

Horrela, bada, askotan joaten ziren Momo ikustera. Beti egoten zen norbait haren ondoan eserita, kontu jakinei buruz hitz egiteko. Eta neska behar bai baina haren gana bertaratu ezin zuenak beste norbait bidaltzen

zuen Momoren bila. Eta neska behar zuela konturatu ez zenari «Joan zaitez Momorengana!» esaten zioten gainerrako guztiek.

Astiro-astiro, esaldi hori ohiko esapide bihurtu zen inguruko biztanleen artean. «Ondo izan!», «On egin!» edo «Jainko maitea!» esaten den bezala, «Joan zaitez Momorengana!» esaten hasi ziren une oro.

Zergatik, ordea? Hain azkarra al zen Momo, gai bartzuten edozein pertsonari aholku on bat emateko? Beti topatzen al zituen hitz egokiak, norbaitek kontsolamendua behar zuenean? Gai al zen lagunen aferak modu zentzuzko eta zuzenean ebazteko?

19

Ez, Momok ezin zuen halakorik beste edozein umek baino hobeto egin.

Hortaz, zerbait egiten al zuen Momok, jendea umore onez jartzen zuena? Ondo abesten zuen, adibidez? Ala instrumenturen bat jotzen zuen? Ala —zirku moduko batean bizi zenez, azken finean— dantza edo akrobazia artistikoak egiten zituen?

Ez, hori ere ez.

Magiaz baliatzen zen, akaso? Konjuru sekreturen bat ezagutzen zuen, buruhauste eta gabezia guztiak uxatzen zituena? Eskuko lerroak irakurtzen zituen edo beste nolabait etorkizuna aurreikusten?

Inondik ere ez.

Hauxe zen Momo txikiak beste inork baino hobeto egiten zuena: aditzea. «Ez da hori ezer berezia», pentsatuko du irakurle batek baino gehiagok, «edonor da entzuteko gai».

Baina hori ez da egia. Gutxi batzuk besterik ez dira gai benetan adi-adi entzuteko. Eta Momok aditzeko zuen gaitasuna apartekoa bezain errepikaezina zen, egiaz.

Hain modu berezian aditzen zuen Momok, inozoek burutazio argitsuak izaten baitzituzten une batetik bestera. Ez, ordea, berak besteei burutazio horiek eragiten zizkien zerbait esan edo galdetzen zielako, ezta hurrik eman ere; han egotera eta arretaz eta interesez entzute-ra mugatzen zen Momo. Bien bitartean, bere begi handi eta beltzekin begiratzen zion hitz egiten ari zenari, eta honek sentitzen zuen nola pizten ziren bere baitan ziren ordura arte susmatu ere ez zituen burutazioak.

20

Hain modu berezian aditzen zuen Momok, pertsona nahasi edo zalantzatiek une batetik bestera baitzekiten zehatz-mehatz zer nahi zuten. Eta lotsatiak une batetik bestera aske eta kementsu sentitzen baitziren. Eta zorigaiztokoak eta atsekabetuak beren buruaz ziur eta zoriontsu. Eta norbaitek uste zuenean bere bizitza porrot hutsa zela eta zentzurik ez zuela eta bat gehiago besterik ez zela milioika pertsonaren artean, batere berezia ez den eta puskatutako lapiko bat bezain agudo ordezkatu litekeen pertsona bat gehiago, Momo txikiarengana joan eta hori guztia kontaktzen zion, eta orduan azaldu ezineko modu batean ohartzten zen, hitz egin ahala ohartu ere, oker zegoela erro-errotik eta bera eta bere izatea bakarrak zirela gizaki guztien artean eta, horregatik, modu berezi horretan, garrantzitsua zela munduarentzat.

Horrela aditzen zuen Momok!

Egun batean bi gizon joan ziren anfiteatora berarekin egotera. Eztabaidan jardun zuten indarrak ahitzeraino eta ez zioten gehiago elkarri hitz egin nahi, bizilagunak ziren arren. Ingurukoek Momorengana joateko aholkatu zieten, bizilagunek ezin zutelako elkarrekin etsaituta bizi. Bi gizonak ezetz eta ezetz tematu ziren hasieran, baina gogoz kontra bazen ere joatea onartu zuten azkenean.

Anfiteatroan zeuden beraz, isilik eta bekozkoz, harrizko eserleku-ilaren mutur batean bakoitza, urrutira kopetilun begiratzen zutela.

21

Horietako bat igeltseroa zen, Momoren «egongelarako» sukaldea eta lorearen koadroa egin zituen berbera. Nicola zuen izena, eta bibote beltz eta puntetan kiribildua zeukan tipo indartsua zen. Besteak Nino zuen izena. Argala zen eta apur bat nekatuta zirudien beti. Ninok hiriaren kanpoaldean lan egiten zuen, alokatutako taberna batean; gehienetan agure pare bat besterik ez zen egoten bertan, gau osoan ardo baso bakarretik edan eta beren oroitzapenak kontatzen. Nino eta haren emazte potoloa ere Momoren lagunak ziren eta askotan eramana kizkioten jateko goxoak.

Bi gizonak elkarrekin liskartuta zeudela ohartu zenez, Momok ez zuen hasieran jakin norengana jo behar zuen lehenago. Bakar bat ere ez mintzeko, harrizko antzeztokiaren erdian eseri zen, biengandik distantzia berera, eta biei txandaka begiratu zien. Zer gertatuko zain geratu zen. Gauza batzuek denbora jakina behar dute, eta denbora zen, hain zuzen ere, Momoren aberastasun bakarra.

Tarte luze batez horrela egon ondoren, Nicola bat-batean zutitu eta esan zuen:

—Banoa. Nire asmo ona erakutsi dut, etorri ere etorri naizelako. Baina, Momo, zuk ere ikusten duzun bezala, tipo hori oso burugorria da. Zertarako gehiago itxaron?

Eta alde egiteko keinua egin zuen.

—Bai horixe, ospa hemendik! —garrasi egin zion Ninok—. Ez zenuen zertan etorri. Ez naiz sekula santan gaizkile batekin adiskidetuko!

22

Nicolak buelta-erdi egin zuen. Haserrearen haserreaz, tomatea bezain gorri zeukan aurpegia.

—Nor da hemen gaizkilea? —galdetu zuen mehatzatzaile, eta bere lekura itzuli zen—. Esazu berriz!

—Zuk nahi beste aldiz! —oihu egin zuen Ninok—. Uste duzu handia eta indartsua zarelako inor ez zaizula egia aurpegira esaten ausartuko, ala? Bada, neuk bai, neuk esango dizut, eta entzun nahi duten guztiei ere bai! Bai, ea, etorri hona eta akaba nazazu behingoz, aurrekoan egin nahi izan zenuen bezala!

—Besterik ez zenuen merezi! —orro egin zuen Nicolak, ukabilak estutzen zituela—. Ikusten duzu, Momo, nola gezurrak eta irainak besterik esaten ez dituen! Alkandoraren lepotik heldu eta bere taberna ziztrinaren atzeko putzu zikinera besterik ez nuen bota. Arratoi bat ere ez zen hor itoko —Momori begiratu zion berriro—. Bistakoa da oraindik bizi zarela!

Tarte batez laidorik basatienak esan zizkieten elkarri, eta Momok ezin zuen ulertu bi gizonak zeri buruz ari

ziren, ez eta zergatik zioten elkarri halako herra. Baina poliki-poliki azaleratzen hasi zen Nicolak zitalkeria hori egin zuela Ninok lehenago, bezero batzuen aurrean, berrondoko bat eman ziolako. Eta horren aurretik Nicola Ninoren ontziteria guztia txikitzen saiatu zen.

—Ez da egia! —defendatu zuen bere burua Nicolak, suminduta—. Pitxer bakarra bota nuen hormaren aurka, eta pitzatuta zegoen gainera!

—Baina *nire* pitxerra zen, entzun? —ihardetsi zion Ninok haserre—. Ez zenuen hori egiteko inongo eskubiderik!

Nicolak uste zuen egindakoa justifikatuta zegoela, Ninok igeltseroaren ohorea iraindu zuelako.

—Ba al dakizu zer esan zuen niri buruz? —galdetu zion Momori—. Esan zuen ezin dudala horma zuzenik eraiki, egunez eta gauez mozkortuta ibiltzen naizelako. Eta nire birraitona ere horrelakoa zela eta Pisako dorre okertuan lanean aritu zela!

—Baina Nicola —erantzun zuen Ninok—, txantxa bat besterik ez zen!

—Ederra txantxa! —suminduta Nicolak—. Ez dit niri barregarik eragiten.

Ninok Nicolari txantxa bat beste batekin ordainarazi nahi izan ziola jakin zuen Momok berehala. Izan ere, goiz batez hauxe topatu zuen Ninok atean, letra gorri gorritan idatzita: «Zerbitzaririk onena, hutsaren hurrena». Eta Ninori ez zion grazia zipitzik egin.

Tarte batez bi txantxetatik zein ote zen dibertigarriagoa eztabaidatu zuten serio demonio, eta sutan

jarri ziren berriro. Baina, bat-batean, isildu egin ziren.

Momok aho bete hortz begiratzen zien bie, eta bakar batek ere ezin zuen begirada hura interpretatu. Bere artean barrez ari al zen haien kontura? Ala atsekabetuta zegoen? Haren aurpegiak ez zuen erantzun zehatzik erakusten. Baina gizonak beren burua ispilu batean ikusiko balute bezala sentitu ziren bat-batean, eta lotsatu egin ziren.

24

—Tira —esan zuen Nicolak—, beharbada ez nuen hori zure atean idatzi behar, Nino. Ez nuen horrela jokatuko, baso bat ardo ematea ukatu izan ez bazenit. Ez al dakizu hori legearen aurkakoa dela? Azken finean, beti ordaindu dizut eta zuk ez zenuen ni horrela tratatzeko inongo arrazoirik.

—Izango ez nuen, ba! —erantzun zion Ninok—. Ahaztu al duzu San Antonioren kontua? Kontxo, zurbildu egin zara! Ondo baino hobeto sartu zenidan orduan ziria eta ez dut zertan halakorik onartu.

—Nik zuri? —oihu egin zuen Nicolak zur eta lur—. Kontrakoa esan nahiko duzu! Zuk engainatu nahi izan ninduzun, baina ustel atera zitzaizun!

Kontua da Ninoren taberna txikiko horman San Antonioren irudi bat zegoela. Koloretako imajina bat zen, Ninok aspaldi egunkari batetik moztu eta markoan ipini zuena.

Egun batean, Nicolak irudia erosi nahi izan zion Ninori, oso polita iruditzen omen zitzaiolako. Eta, trebeki negoziatu ondoren, Ninok tratu polita egin zuen Nicolarekin,

honek irratia eman eta trukean irudia eskura zezan. Ninok bere kolkorako irribarre egin zuen, begien bistakoa zelako bera izango zela hitzarmenaren onuradun nagusia. Tratua itxi zuten, beraz.

Baina irudiaren eta atzeko aldeko kartoizko taparen artean Ninok ordura arte ikusi ez zuen billete bat zegoen. Horrela, Nicola zen onuradun nagusia eta horrek amorratu egin zuen Nino. Itzulingururik gabe eskatu zion dirua itzultzeko, tratutik kanpo zegoelakoan. Nicolak ezetz esan zion, eta harrezkero Ninok ez zion edatekorik gehiago zerbitzatu nahi izan. Horra hor bien arteko ikusiezina-
ren hasiera.

Borroka piztu zuen arazoaren hasierara heldu bezain laster, bi gizonak tarte batez isildu ziren.

Orduan hauxe galdetu zuen Ninok:

—Esan egia, Nicola. Diruaren berri al zenuen tratua egin aurretik?

—Jakina, ez nuen bestela horrelako traturik egingo.

—Horrela, bada, onartu beharko duzu ziria sartu zenidala!

—Nola? Ez zenekien, benetan, diruarena?

—Zin degizut ezetz!

—Tira. Orduan zu zara niri iruzur egiten saiatu zena. Nola kendu nahi izango zenidan bestela irratia, inongo baliorik ez zuen egunkariko orri zati haren truke?

—Eta nolatan zenekien dirua hor zegoela?

—Bi egun lehenago bezero batek, San Antonioren-
tzako eskaintza gisa, hor nola sartzen zuen ikusi nuelako.

—Asko zen? —Ezpainei kosk egin zien Ninok.

—Nire irratiak balio zuena, ez gehiago eta ez gutxia—
go —erantzun zuen Nicolak.

—Beraz —hausnartu zuen Nicolak—, nik behin egunkaritik moztu nuen San Antonioren ingurukoa da gure eztabaida guztia.

Nicolak buruan hatz egin zuen.

—Egia da, bai —marmar egin zuen—; itzuliko dizut nahi baduzu, Nino.

26 —Ez ba! —erantzun zuen Ninok duintasunez—. Tra-
tua beti tratu! Bostekoa sakratua da ohorezko gizonon artean.

Eta, bat-batean, biak barrez hasi ziren aldi berean. Harrizko harmailetatik jaitsi eta belarrak hartutako plaza biribilaren erdian elkartu ziren, elkar besarkatu zuten eta bizkarrekoak eman zizkioten elkarri. Jarraian Momo besoetan hartu eta esan zioten:

—Eskerrik asko!

Gizonek alde egin ondoren ere, Momok luze egin zien agur eskuaz. Oso pozik zegoen, bere bi lagunak adiskidetu zirelako.

Beste egun batean, abestu nahi ez zuen kanarioa eramane zion mutiko batek. Askoz lan zailagoa izan zen hori Momorentzat. Astebetez aditu behar izan zion, txoria berriro txorrotxioka eta alaitasunez kantari hasi zen arte.

Guzti-guztiei aditzen zien Momok: txakurrei eta katuei, kilkerrei eta apoei, baita euriari eta zuhaitzetako haizeari ere. Eta guztiek hitz egiten zioten, bakoitzak bere erara.

Gau batzuetan, bere lagun guztiak etxera itzuliak zirenean, denbora luzez bakarrik geratzen zen teatro zaharreko harrizko antzeztoki biribil eta handian. Iza-rrek diz-diz egiten zuten zeruan, eta Momok isiltasun handia aditzen zuen.

Orduan unibertsoa entzuteko gai zen belarri handi baten barruan zegoela iruditzen zitzaion. Eta irudipena zuen musika isil eta aldi berean sekulako bat entzuten zuela, modu bitxi batez bihotzeraino heltzen zitzaiona.

Halako gauetan amets bereziki politak izaten zituen beti.

Aditzea ezer berezia ez dela pentsatzen jarraitzen duenak egin dezala proba, ea Momo bezain trebea den.